



LIBURUA

Jende molde halakoa



RICHARD AVEDON

KAFE TRISTEAREN BALADA

CARSON MCCULLERS
ITZULTZAILEA: ASUN
GARIKANO

PASAZAITE

AMAIA ALVAREZ URIA

Carson McCullers-en narrazioak itzuli ditu Asun Garikanok eta Pasazaite argitaletxeak plazaratu. Egile honen lanik ezagunena *The heart is a lonely hunter* (1940) (Bihotza ehiztari bakartia da) izan zen eta ipuin bilduma hau hamar urte geroago argitaratu zuen. Bere lanetan pertsonaia ezohiko, bitxi, marginalerik betetako Amerikako Estatu Batuetako hegoaldeko giroa topatuko dugu. Izan ere, bi ezaugarri horiengatik, *hegoaldeko gotikoa* erabiltzen dute bere lanak deskribatzeko.

Zazpi ipuin hauetan eguraldi bero hezea edo zoro haizea duten protagonistak topatuko ditugu, besteak beste. Lehen eta azken ipuinak kafetegi batean kokatuta daude eta, bildumako izenburuko kutsu iluna gorabehera (*Kafe tristearen balada*), bi ipuinetan agertzen da kafe-

tegia elkargune goxo gisa: “Han barruan, tarte labur batez bazen ere, moteldu egiten zen mundu honetan hutsa balio duzulako sentipen sakon, mingotsa” eta “Kale gorri, bakartien ondoren, kafeak leku alaitua eta lagunartekoa zirudien”.

Pertsonaiak eta euren bizipenak izango dira orriotara giro goibel edo gatazkatsua ekarriko dutenak –konkordun liskartia, *jockey* sumindua, ama alkoholikoa, edo eskale-filosofoa-. Istorioen erdigunera ekartzen ditu “besteak”, arau sozialak urratzen dituztenak, eta haien inguruarekiko hartu-emanak erakusten dizkigu egileak, normaltasuna auzitan jarritz: “Berak ere bazituen bere bitxikeriak”.

Egoeren eta gorputzen deskribapenak nagusi dira, adibidez, protagonisten eskuen adierazkortasuna: ukabilak itxi,

atzamarrak kaketu, edo hatz-koskorrekin hotsa atera. Gertaera konkretuen bidez gai unibertsalak aletuko zaizkigu, denboraren iragateari edo maitasunari buruzko hausnarketa proposatuko zaigu. Ahots narratiboak zuzenean irakurleari hitz egingo dio tarteka, istorioaren kontaketa mekanismoak bistan jarritz eta informazioa dosifikatuz.

Haur prodigioak ‘berezi’ izatearen presioa agertuko digu, eta jaioterrira aitaren hiletara itzuli den ‘arima askea’ iraganarekin aurrez aurre topatuko da oraina zalantzan jarritz. Baina Madame Zilenskyren ipuina gomendatu nahi dut amaitzeko, bertan agertzen delako aipatutako argiaren eta ilunaren arteko talka, baina baita errealitatearen eta fantasiaren artekoa ere, finean bizitzaren gazi-gozoarena. ●